

# ek!

...eta kitto!

Euskara Elkartearen astekaria

2020ko ekainak 9 • 1145. zenbakia

## ETA ORAIN, ZER? COVID-19ak LAGA DIGUNA



servicios inmobiliarios

Toribio Etxebarria, 1

# EUKI

20 urtetik gorako esperientzia  
eskaintzen dizuegu  
bailorazioetan eta eraikinetako  
salerosketa, alokairu eta  
traspasorako bitartekotzan



bisitatu gure eskaintzak web-ean  
[www.euki.com](http://www.euki.com)

GALDETU: 943 20 03 58 / [fincas@euki.com](mailto:fincas@euki.com)

# + osasun gida

## Dentistak



**Arat**  
Hertz Klinika

"Hortz osasuneko profesional taldea zure zerbitzura"

T. 943 20 18 51  
info@clinicadentalarat.com  
www.clinicadentalarat.com  
Toribio Etxebarria, 7 - EIBAR

UniverSalud  
Mutua, konpainia eta kolektibo handekin ibundutako zentroa



**IRAZABAL**  
clínica dental

Iribarreetan adituak  
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.  
Tfnoa. 943 20 85 52  
www.clinicairazabal.com

## Estetika



**abontza**  
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

**MEDIKUNTZA ESTETIKOA**

**KIRURGIA ESTETIKOA**

Egiguren, 6 - Ibaeta 943 206 044



**bista eder**  
clínica dental hertz klinika

Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19  
www.bistaeder.es

**MIGUEL SEMINARIO ZURIARRAIN ODONTOLOGOA**

Odontologia orokorra  
Ortodontzia  
Implanteak

**Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702886**

**Javier Martin dokorea**  
Aurpegi-masailetako Kirurgilaria

**AURPEGIA GAZTETZEKO KIRURGIA**

**AURPEGIKO KIRURGIA ESTETIKOA**

679 334 371  
943 120 200

KONTSULTAK: Centro Médico Eibar  
KIRURGIAK: Policlínica Gipuzkoa

## Dietetika/Nutrizioa



**EIBAR** HORTZ KLINIKA CLÍNICA DENTAL

MAITANE G. IÑIGUEZ

Zerbitzu guztiak klinika berberan

San Agustín, 4 beheko azk. info@eibarclinicadental.com  
943 537 076 - 688 884 808 www.eibarclinicadental.com

**NATUR HOUSE**

Ainara Iriondo Ansola  
GIZA ELIKADURAN ETA DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22  
Mugikorra: 677 551 850

## Fisioterapeutak



**ANE MENDIA**  
19 Kaleja eta 1/2

- ENBILATERAPIA
- KIBRO LESIOAK
- DRENAJE LINFATIKOA
- POSTURA ZUZENKETA
- TRATAMENDUAK

**FISIOTERAPIA ZENTRUA**

AARRAQUISTA, 20  
Tfn: 943 53 06 42  
www.aneclinfat.com

## Errehabilitazioa

**CRF AMOSTEGI**

**ERREHABILITAZIOA**

- \* Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- \* Min-Unitateak
- \* Inkontinentzia urinariak
- \* Kirol medikuntza
- \* Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOBAR)  
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

## Ginekologia

Dra. Laura Martinez  Dr. Alejandro Recas

**GINECOLOGÍA EIBAR**

- Ginekologia
- Obstetrizia
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D  
dr.recas@gmail.com  
dra.martinezgallardo@gmail.com  
www.ginecologiaeibar.com

**Pedro Etxebarria Gisasola DENTISTA**

09.00etatik 23.00etara eta 25.00etatik 20.00etara  
**EGUNERO**

Calbetos 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17



**GASTESI**  
Hertz-Klinika

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI  
Ortodontzia / Implanteak / Laser Teknologia

Errebal, 9 - 1. C 943 70 00 90 / 688 68 96 02



**hortz-klinika**  
**B. IZAGIRRE**  
clínica dental

**EGUNERO**

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85

# Editoriala

## Eta orain, zer?

Hori da gehienok buruan darabilgun galdera. COVID-19ak eragin duen krisi sanitario, ekonomiko eta kulturalak ezustean harrapatu gaitu eta, behin hasierako sustoa pasatuta, galdera eta zalantza betetako etorkizuna laga digu aurretik pandemiak: nolakoa izango da gure bizitza hemendik aurrera? Noiz arte gorde behar izango dugu distantzia soziala? Noiz arte jantzi beharko dugu maskarilla?...

Komunikabideon kasuan, lehen mailako zerbitzu izendatu gaituzte eta ahal dugun guztia egin dugu lanean jarraitzeko, besteak beste, herritarrei pandemiaren inguruko informazio zuzen eta eguneratua helarazteko. Euskal hedabideek egin-dako ahalegin horrek erantzun paregabea izan du herritarren aldetik eta kontsumoak gora egin du euskarri guztietan, baina bereziki digitaletan. Trafiko hazkundera orokorra izan da, mundu mailakoa, baina euskarazko komunikabideen kasuan, lortutako emaitza horiek berebiziko garrantzia dute eta etorkizunera begira erronka eta aukera berriak iradokitzen dituzte.

Oro har, aurrerantzean ere sektore estrategiko gisa aintzat hartuak izateko arrazoiak ez dira falta. Osasun-krisi honetan, legez, oinarriko sektoretzat hartuak izan gara. Pairean baina, pandemiaren aurrean hartutako erabakiek, zuzenean edo zeharka, diru-iturri desberdinetan murrizketak eragin dituzte, eta horrek jada bizi izan ditugun eta gaindituztat eman nahi ditugun garai ilunak ekartzen dizkigu gogora.

Kosta ahala kosta lortutakoari eutsi behar zaio, eta ahal den heinean lortutakoa hobetzeko pauso berriak eman. Hori da sektorearen egonkortasuna bermatzeko eta berarekin euskararen normalizazio prozesuan pauso esanguratsuak emateko bide bakarra. Lan asko eta ahalegin handia egin da gauden tokiraino iristeko eta hasitako bidea emankorra izaten ari da. Jarrai dezagun elkarlanean bidea egiten eta gaindi ditzagun etor daitezkeen traba eta oztupoak elkarrekin. **Denok batera lortuko dugu!**



Euskara Elkarte

**ARGITARATZAILEA**  
...eta kitto! Euskara Elkarte  
**HELBIDEA**  
Urkizu, 11. 20600 Eibar  
**TELEFONOAK**  
943 20 67 76 / 943 20 09 18  
603 598 285  
**FAXA** 943 20 28 72  
**ASTEKARIAREN E-MAILAK**  
erredakzioa@etakitto.eus  
komunikabideak@etakitto.eus  
publizitatea@etakitto.eus  
**ELKARTEAREN E-MAILAK**  
elkarte@etakitto.eus  
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA**  
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,  
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi  
eta Silbia Hernandez  
**ADMINISTRAZIOA**  
Marisol Uriarte  
**KOORDINATZAILEA**  
Ana Aizpurua  
**ERREDAKZIO-BURUA**  
Silbia Hernandez  
**DISEINUA**  
Maku Oruezabal  
**MAKETAZIOA**  
...eta kitto! astekaria

**ARGAZKI ARLOA**  
Malen Jainaga eta  
Malen Illaramendi  
**HIZKUNTZA ARDURA**  
Juan Andres Argoitia eta  
Maider Aranberri  
**PUBLIZITATEA**  
Itziar Albizu eta Belen Ulazia  
**TELEFONOA**  
943 20 67 76  
**AZALEKO ARGAZKIA**  
Malen Jainaga  
**BANAKETA-ARDURA**  
Idoia Labado

**TIRADA**  
7.780 ale  
**INPRIMATEGIA**  
GERTU koop. (Oñati)  
**COPYRIGHT-A**  
...eta kitto!  
**LEGE-GORDAILUA**  
SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZA)



Aurtengo udan gure inguruan ibiliko diren turisten perfila aldatu egingo dela aurreikusi dute Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailean: gertuko bisitariak eta egonaldi laburrak espero dituzte.

## Etxetik gertuko turismoari itxaropentsu begira

Orain dela gutxi egindako adierazpenetan esandakoaren arabera, Sonia Perez Eusko Jaurlaritzako Turismo sailburuak itxaropentsu begiratzen dio udari eta, mugak zabaltzearekin batera, turistak poliki-poliki ailegatzen hastea espero dute. Hala ere, jakin badakite urrutiko turismoa berreskuratzeko gehiago itxaron beharko dela. Horregatik, aurtengo udan behintzat, barne turismoaren aldeko apustua egingo da batez ere. Sailburuaren berbetan, “turismoak segurtasuna behar du irteera lekuan eta helmugan. Horregatik, lan egin dezagun barne turismoari begira bitartean, tokiko helmugekin” lldo horretan, egun bateko edo biko egonaldiak sustatuko dituzte, “etxetik ateratzeko, baina etxetik atera gabe”.

**B**adirudi, gainera, berba hotien arteko jolasetik irtengo dela udako kanpainarako goiburua. Sailburuak esandakoaren arabera, herritarren erdiek baino gehiagok esan dute gertu, “helmuga seguruetan” geratzea nahiago dutela eta, horregatik, Turismo Sailak esperantza dauka Mediterraneo aldera joaten diren euskal herritar asko erakarriko dituztela aurtengo udarako.

Perezaren arabera, Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak oso posizio ona dute turismoaren zat-sortu diren “aukera berriak”

beraien alde jartzeko, “top 10 zerrendaren barruan daudelako. Ez gara eguzkiaren eta hondartzaren turismoaren ordezkari, baina ezaugarri jakin batzuk ditugu beste erkidegoetako turistak erakartzeko”.


Etxe inguruko turismoari begiratu gero, aurtengo 10 urte betetzen dituen Euskal Kostaldeko Geoparkearen eskaintza garrantzitsuenen artean dago, proposamen eta irteera plan ugarirekin. Hala ere, eskaintza hori COVID-19aren ondorioz bizi dugun errealitate berrira moldatu behar izan dute eta

ohiko eskaintzaren barruan zeuden jarduerak asko momentuz ezin izango dituzte garatu. Hala ere, horien tokia betetzeko bestelako proposamen batzuk lantzen ari dira eta, horien artean, garrantzi berezia hartuko dute naturarekin lotutako planek.

### Geoibilbideetaz gozatzeko proposamen berriak

Orain dela gutxi eman dute ezagutzera Euskal Kostaldeko Geoparkeko geoibilbideetaz gozatzeko proposamen berriak. Deba, Mutriku eta

Zumaian ondare naturala eta kulturala ezagutzea helburu duten geoibilbideen sarea sei ibilbideek osatzen dute eta, horiek ezagutzera emateko, PDF interaktiboak egin dituzte, mugikorrean deskargatu eta eramateko: “Geoparkearen ondare geologikoa ezagutu eta merezi duen garrantzia emateko sortu da material hau eta PDF formatuan daude eskuragarri, erabiltzaileak mugikorrean deskargatu eta ibilbidea egiten duen bitartean gainean eramateko. Material hau orain arte zeuden geoibilbideen gida liburua eta



**Euskal Kostaldearen Geoparkeak bere ohiko eskaintza egoera berrira moldatu behar izan du eta bakoitzak bere kabuz, lagunekin edo familian egiteko moduko ibilbide eta planak prestatu ditu.**

panelak osatzera dator, ibilbideetan zehar dauden interesguneak modu erraz baina zehatz batetan ezagutzeko”.

PDFak Geoparkearen webgunean (geoparkea.eus) daude eta ibilbidea egiteko behar den informazio guztia aurkitu daiteke: abiapuntua, iraupena, hasiera puntura iristeko beharrezko argibideak, interesguneak eta ibilbidearen mapa interaktibo bat, besteak beste.

Geoibilbide hauetan, Algorriko altxor geologikoa, Elorriagako biotopoko behatoki handia, Sakonetako senadi eta labar basatiak, Lapariko flysch beltza, Olatz harana eta Zumaian hasi eta Deban amaitzen den Talaia ibilbidea ezagutuko dituzu (azken honi flyscharen ibilbidea ere deitzen zaio).

Ibilbideak balizatuak eta interpretatuak daude, eta luzera desberdinak dituzte, kilometro eta erdikoa laburrena eta ha-

malau kilometrokoa luzeena; materiala euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez dago eskuragarri.

**Inguruko zuhaitzak ezagutzen**  
Horrez gain, Europako Geoparkeen Astearen baitan, Deba, Mutriku eta Zumaia hirigune barruko zuhaitz bereziak ezagutzeko ibilbide birtualak sortu ditu Euskal Kostaldeko Geoparkeak. Deba, Mutriku eta Zumaian norberak bere ka-

buz egin ahal izateko moduko ibilbideak dira, hiru bat kilometrokoak, eta helburua herri barruko biodibertsitatea ezagutzera ematea da. Ibilbideak euskeraz daude eta familian, lagun artean edo bakarka egiteko diseinatuta daude.

Azaldutakoaren arabera, “bisita mapa bati jarraituta egingo da eta bertan dago markatuta zuhaitz bereziak non dauden kokatuta. Zuhaitz bakoitzak bere informazio-fitxa dauka, testua, irudia eta audio batez osatuta. Ibilbideak egiteko mapak zuzenean Geoparkearen webgunetik deskargatu daitezke, edota Google Maps aplikazioan ireki”.

Herri bakoitzerako proposatzen den paseoa bertako Turismo Bulegotik abiatzen da eta 10 bat zuhaitz ezagutzeko aukera ematen du: “Guztira 23 espezie-tako 28 zuhaitz identifikatzeko aukera izango duzu”. ■

**Mugikorrean deskargatzeko moduko PDF interaktiboak eta ibilbideen mapak prestatu dituzte**



Aurreko otsailean Eusko Jaurlaritzako eta Debabarreneko Udaletako ordezkarien bisita jaso zuen "Txikitasunetik Handi" proiektuan parte hartu duen Ixua Hotelak.

## Herriko turismoari eusteko ahaleginak eta bi egiten

Pandemiak arlo askotan izan badu eragina, kalterako jakina, turismoari zelan eraso dion begibistakoa dugu guztiok. Gurean ere, modu batean edo bestean, aurre egin behar izan diote egoerari eta aurrera zelan jarraitu asmatzeko lanean dihardute. Ixua eta Sosola ditugu Debabarreneko erreferente, jendeari zerbitzu onena eskaintzeko gogoz.

Roberto Azpillagak eta Esther Gisasolak egoera berezi honi zelan diharduten aurre egiten kontatu digute, "ziurtasun ezaren aurrean" asmatzeko ahaleginean.

**E**ibartarrantzat eta kanpotik etortzen diren askokentzat aski ezaguna da Ixua. 1969an zabaldu zituen ateak jatetxeak, mendi bidez Eibar Bizkaiarekin lotzen den goialde horretan. Mende erdian bertako sukalde eskualdeko erreferentea izan ondoren, orain dela urte bi boutique-hotela zabaldu zuten bertan. Luxuzko giro goxo eta lasaia aurkituko dute bisitariak landa-gune horretan eta turistei gustatu zaie aurkitzen duten proposamen berria.

Hotela kudeatzen duen Roberto Azpillagak dioskunez, "martxoaren 14an itxi behar izan genuen, derrigortuta, eta maiatzaren 11n zabaldu genuen berriro, jatetxea behintzat". Instalazioak duen terraza handiak aukera bikaina eskaini die orain arte bertan izan diren guztiei: "Espazioari esker agindutako distantzia gorde ahal izan dugu mahairen artean eta espero baino hobeto abiatu gara berriro. Eguraldiak ere lagundu digu lehenengoko egunetan, bazkariak kanpoan egin ahal izan

**"Kanpoalde zabalak distantziak gordetzea ahalbidetzen du eta eguraldiaz gozatzea"**

ditugu, eta dugun inguru ederra guztien ahotan izan da". Jate-txearen espazioa ere egokitzen joan dira "eta langileak ere banan-banan eta jornada erdira inkorporatzen. Guztiak ERTEn izan dira; emaztea, bestalde, autonomia da. Hoteleko zerbitzua, bestalde, etxekook jarraitu dugu egiten".

Hoteleko erreserbak jausten joan dira, "irailera artekoak %90ean". Atzerritarrek izaten dira ohikoenak Ixua kasuan, Herbehereak, Frantzia eta Belgikatik datozenak: "Iragaitzez

etortzen dira, gau bateko egonaldia egitera eta bidea jarraitzera". Espainiatik ere bisitari asko jasotzen dituzte, "hiru-lau gau pasatzera, Eibarrek duen kokapenak erakarrira". Orain hasi dira deiak ere jasotzen, "estatutik, jakina, atzerrikoen kasuan agintariek hartzen dituzten erabaki eta neurrien arabera izango baita". Hala ere, atzeritarrak etortzea "aurten oso zail" ikusten du Azpillagak, "batzuk oraindik euren erreserba kanzelatu ez badute ere". Eskaintza berriak ere martxan ipini behar izan dituzte Ixua-koek, prezioak-eta jaitsez. Aurreikuspen handirik ez da auzartzen egitera, baina espero du uztaila amaierarako "zeozer argitzen joatea".

### Sosolan ere ekiteko prest

Sosola landa-turismoko hotela 2002tik dago martxan, Amañatik gora dagoen XVI. mendeko monumentu historikoan. Ia urte osoan izaten ditu beteta bere logelak eta gune berde eta menditsuez gozatzeko aukera eskaintzen die bisitariari. Esther Gisola da bertako arduraduna eta gaur egungo egoerak sortutako zalantzei zelan egin aurre

asmatu nahian aurkitu dugu. "Martxoaren 12an laga behar izan genion zerbitzua eskaintzeari. Erreserba piloa genituen ordurako, egunero beteta, urri-arte bai gutxienez". Ordutik geldirik dago asuntua: "Eibartik Eibarrera ez dira etorriko ba? Zortzi-bederatzi egunetarako lotutakoak ere kanzelatu egin behar izan ditugu". Geldialdi honetan, dena dela, ez dira besoak gurutzaturik egon, eta eguzki-plakak ipintzeko baliatu izan dituzte egunok. "Lehen ura berotzeko genuen bakarrik, baina kontsumoa ere handitzen joan da eta futboltaikoak ipini ditugu orain".

Bestela, Debabarreneko beste landa-turismoko jabeekin ere izan da harremanetan eta, dioenez, "guztiok gaude antzerako bidegurutzean: inongo ziurtasunik ez dugu lanean hasteko, ez dakigu nondik nora joko duen kontuak. Krisia ez da joan, hemen dago, gure artean". Hainbat arazo ikusten ditu "hasten garenerako. Guk buffeta ere prestatzen dugu: jaki gozoak, gaziak eta kafearekin... horko protokoloak... gauza asko dira zalantza sortzen dutenak".

## "Geldialdi tarte hau beharrezkoak genituen eguzki-plakak ipintzeko aprobetxatu dugu"



Abuztuan Espainiatik etorritako bisitariak jasotzen baditu ere, "urtean zehar atzeritarrak izaten dira nagusi, mundu guztitik datozenak gainera". Iparraldetik jende asko datorrela dio Estherrek, eta ez ditu ahaztu nahi "alemanak eta ingelesak. Hona datozenak orokorrean lau-sei egunerako etortzen dira". Hainbat toki eta ibilbide ezagutzeko proposamena jasotzen dute Sosolan bertan eta bisitariak asko eskertzen dute hori. Bestalde, ez pentsa jendeak telefonoz edo zuzenean jotzen duela bertara: "Booking bilaketa plataformaren bidez jartzen dira gurekin harremanetan batez ere, bertan gure bezeroek egindako iruzkinak eta agroturismoaren kalitateari eskainitako puntuak jasotzen baitira". Horko azken emaitzek 9'3ko puntuazioa eman diote Sosolari, goi mailan kokatuz mundo mailan. Normalean atsedean pixka bat izaten badute ere neguan, aurtengoa ikusteko dago.

Hori bai, gure herriaren edertasuna zalantzan jartzen duten horiek ez lukete halakorik izango Sosolan edo Ixuan gaua bertan pasatuko balute. ■



Euskal Herriko hiriburuetatik distantzia gutxira egoteak bisitari asko ekartzen ditu Sosolara, bertan atsedean lasaia hartu eta inguruneak ezagutzeko aukeraz gozatzeko.



# Udaz gozatzeko gogoz

Hainbat hilabetez etxetik irten gabe, lagunekin elkartu barik, eskolara joan ezinda eta parkean jolastu ezinik egon ondoren, herriko haurrek ilusioz begiratzen diote ate joka dugun uda sasoiari. Koronabirusaren amesgaiztoa atzean laga eta gozatzeko momentua izango da eurentzat, nahiz eta uda berezia izango den. Egoera okertzen ez bada, udalekuak zain dituzte.

**E**ibarko Udalak antolatzen dituen udaleku irekiak airean daude oraindik. Haur eta Gazteria sailetik diotenez, gaia sakonean aztertzen dihardute eta aste honetan hartuko da udalekuen inguruko erabakia.

Bitartean Astixa, hainbat urtetan herriko udalekuen ardura izan duen enpresa, erabakiaren zain dago udalekuen inguruko plangintza guztia zehazteko. “Eusko Jaurlaritzak pautu batzuk markatu arren, udal bakoitzak erabakiko du herri bakoitzean zer egingo den udalekuekin”, esan digute Astixakoek. “Eibarko Udalak oraindik ez du erabakirik hartu eta horren beharra dugu. Aste honetan zehar zerbait jakitea espero dugu”.

Maiatzaren 5ean udaleku ireki ezberdinetan aurre-matrikula egiteko epea zabaldu zen eta 701 haurrek eman dute izena: 592 umek ‘Oporrak Afarikitant’ programan, 84k ‘Udan jolasen’-en, 21 animatu dira ‘Firin Faran’-era eta 4k aukeratu dute

‘Umiak Firin Faran’. Udalekuak egiten badira, aurre-matrikula egin dutenek behin-betiko matrikula aurrez aurre egin beharko dute. “Beharrezkoa dugu haurraren gurasoen edo legezko tutorearen sinadura eta baimena izatea”, dio udalak ohiko galderak erantzuteko prestatu duen dokumentuak (eibareus webgunean dago ikusgai).

Dokumentu horren arabera udalaren nahia udalekuak egitea da, baina egitekotan gauza asko daude erabakitzeko oraindik: egutegia, ordutegia, egitaraua, antolakuntza... “Udalekuak egiten badira, ez dira orain arte egin direnak bezalakoak izango”, diote Astixakoek. “Gure esku dagoenarekin ahal dugun guztia egiten dihardugu, baina ez dakigu alperrik izango den ala ez”. Beraz, udalekuak aurrera badoaz, den-dena prest edukitzeko gogor egin beharko dute lan Astixakoek.

## Mitxeleta prest

Mitxeleta aisialdi taldea ere zehaztaper batzuen zain dago

## “Udal bakoitzak erabakiko du herri bakoitzean zer egingo den udalekuekin”

oraindik, baina udalekuekin aurrera jarraituko dutela esan digute. “Hori espero dugu behintzat”, diote.

Printzipioz hamar lagunek taldeetan antolatuko dira. “Hala ere, ofizialki ez dakigu zein neurri hartu behar ditugun maskaren erabileraren, segurtasun-neurrien eta horrelakoen inguruan”, diote. Aste honetan gai horren inguruko informazioa lortzea espero dute gurasoei gauzak argi lagatzeko.

Egoera berezia izan arren, jendea animatu egin da Mitxe-

letak antolatzen dituen udalekuekin parte hartzera. “Joan den astean jendeak informazio gehiago izan zuen eta lagun gehiago apuntatu ziren”, esan digute. Momentuz aurreko urteetan baino jende gutxiagok eman du izena, baina ekainaren 12ra arte egongo da zabalik izena emateko epea (aisiamitxeleta@gmail.com, 629015890, 697532570).

Mitxeletak bost astetan banatu ditu udalekuak: 1. astea ekainaren 29tik uztailaren 3ra, 2. astea uztailaren 6tik 10era, 3. astea 13tik 17ra, 4. astea 20tik 24ra eta 5. astea 27tik 30era. 2 eta 5 urte artekoek jolas sentsozialak, sukaldaritza, ipuin-kontaktak, antzerki-ikuskizunak eta olinpiada txikiak egingo dituzte, besteak beste. “Txikiak herriko parkeetara joango dira”, diote Mitxeletakoek.

6 urtetik 10 urtera artekoek, bestetik, jolas kooperatiboak, eskulanak, ginkanak, olinpiada handiak, eta abar egingo dituzte. Iazko egitarauarekin alderatuz ez dituzte irteerarik egingo,





Mitxeleta aisialdi taldeokak herriko toki ezberdinetan ibiliko dira udan.



Zorionak ludotekak eta Nekane Pastor akademiak antolatzen duten 'Summer camp'-ean irteerak egitea espero dute.

“hasiera batean ez behintzat”, eta Eibarko toki ezberdinetan ibiliko dira.

**Ingelesa praktikatzeko aukera**  
Zorionak ludotekak eta Nekane Pastor hizkuntza-akademiak udan ingelesa praktikatzeko aukera eman dute azken urteetan. ‘Summer camp’ delakoa antolatzen dute eta aurtengo inoiz baino ilusio gehiagorekin dihardute prestatzen. “Haurrek sasoi gogorra pasatu dute itxialdian. Erakundeek umeak ahaztuta izan dituzte

eta gogo asko dugu eurekin ondo pasatzeko”, esan digu Zorionak ludotekako Ainhoa Muniategik. “Haurren bizi-tza asko aldatu da eta eurentzat oso garrantzitsua da beste umeekin harremana izatea, jolastea, eta abar”.

Astixak eta Mitxeletak bezala gauza batzuk zalantzan dituzte oraindik, baina gauzak ondo bidean ekainaren 29tik uztailaren 24ra egingo dituzte udalekuak 5 eta 12 urte arteko umeentzat. “Eta data horiek gehiago luzatu behar

**“Erakundeek umeak ahaztuta izan dituzte itxialdian eta gogo asko dugu eurekin ondo pasatzeko”**

badira, aztertuko dugu”, dio Ainhoak. Hori bai, zehaztutako ordutegiarekin (09:00etatik 13:30era) zorrotz aritu beharko dira segurtasun-neurriak ondo betetzeko. “Gauzak ondo egiten direla ziurtatu behar dugu eta zentzu horretan zorrotzak izan behar dugu”.

Aurreko urteetan egin bezala, astero gai bat aukeratuko dute eta horren inguruan hainbat ekintza egingo dituzte. “Iaz, adibidez, gorputz mugimenduen inguruko ekintzak egin genituen eta capoeira egiten

zuen pertsona bat etorri zen, munduko dantzak ikasi genituen, eta abar”, dio Ainhoak.

Ekintzak kalean egiten saiatuko dira, baina euria egingo balu Zorionak ludotekan edo Nekane Pastor akademian egingo lituzkete. Gehienez 15 laguneko taldeak osatuko dira eta segurtasun-neurri guztiak hartuko dituzte.

Aurreko edizioetan astean behin txango bat egin ohi zuten, baina otsailetik erreserba eginda eduki arren (Bilboko Itsas Museora, adibidez), oraindik ez dakite joan ahal izango diren. “Ez dakigu zehazki autobusean nola joan gaitezkeen, zenbat lagun, zein neurri hartuta... Dena dela, Eibarren duguna ikusteko aprobetxatuko dugu”, Ainhoak dioenez.

‘Summer camp’-ean izena emateko epea zabalik dago eta, interesa edukiz gero, Nekane Pastor akademiarekin (info@idiomasnekanepastor.com, 625134161, 650069674) edo Zorionak ludotekarekin (ludotekazorionak@gmail.com, 688876518) harremanetan jaretzea nahikoa da.

Umeek gozatzeko sasoa heldu da. ■



# Maskarak eta distantzia jokoan

Normaltasun berria maskara dantza da. Aurpegi erdia ezkutuan dugula ahalegintzen gara bizitza normaltasunez eramaten, orain arte elkar ulertzen ginen moduan jarraitzea zailagoa bihurtu bada ere. Egun askoz gehiago kostatzen zaigu ohiko aurpegiak ezagutzen, aurpegi erdia ezkutatzeaz gain, batzuen kasuan eguzki betaurrekoek beste erdia tapatzen digutelako.

**A**ntzinatasunean (hau da, martxoaren 14ra arte) irribarre txiki batek ia guztia konpondu zezakeen, baina maskarekin ez dago irribarrerik. Zeozertan okertu bazara, edo zeozer txarto egin baduzu, aurpegiaren goiko aldea geratzen zaizu bakarrik hori konpontzeko. Agur giza lubrifikatzaileari. Maitasun-amodio toxikoaren antza du maskarekin izan dugun idilioak: eurekin ezer jakiterik ez genuen sasoiatik urrezko prezioan erostera pasatu ginen, gero toki batzuetan gure NAN balitz erabiltzeraino, azken aldi-dian doan eskuratu badezakegu ere. Hasieran maskara zeramatenek guretzat ia ikustezinak ziren, kaleko mobiliarioaren pareko; orain guztiok bihurtu gara mobiliario horien zati. Eta gure burua behartuta ikusi dugu begiak eta bekainak erabiltzera edozer gauza adierazteko, eta besteen begiradei erreparatzen diegu haiek ulertzeko ahaleginean. Begietara begiratzeko erreparoa zutenek

sasoi bateko aho eta masailen itzuleraren zain egongo dira.

Azkenean, ohitu ere egingo gara. Daramagula ere ahaztuko zaigu eta ez gara jabetuko adierazpen-bide garrantzitsua galdu dugula. Seguraski, dena dela, maskararena baino gogorragoa egingo zaigu distantzia sozialarena: distantzia batera berba egitea deseroso eta estresanteago egiten zaigu, batez ere gure kulturaren intimitatea eta estimua gertutasun fisikoarekin adierazten dugulako. Luzera jota, besarkada bat gehiago botako dugu faltan irribarre bat baino.

**Balkoitik balkoirako agurrak** Distantziari eustearekin koronabirusaren hedapena gutxitzen dugula jakinarazi diguten honetan, badira kultura batzuk gu baino aurreratuago daudenak arlo horretan, agur egiteko kontaktu fisikorik behar ez dutenak. Wai, Saalam, Namasté eta erreberentzia izan daitezke hedatuak, baina ez dira bakarrik. Thaiandiako **wai-k**,

## Luzera besarkada bat gehiago botako dugu faltan irribarre bat baino

besteei irekitzeaz gain, bake bila gatzela adierazten du: burua zertxobait jaitsi eta eskuak batzen dituzte bular parean. Budismoaren eta hinduismoaren eragina du eta erreztzeko eta barkamena eskatzeko ere erabiltzen da. Islamiar kulturako **saalam**-a praktika espiritualarekin ere lotzen da: As-salamu alaikum bakea zurekin esan nahi du eta hori esaten duenak aldi berean eskumako eskua bihotzera eramaten du. Islamiarrentzak oso keinu berezia da, sakratua, arima bihotzean

dagoelako. **Namasték** milaka urtetako antzinatasuna du Indian eta esku-azpiak elkartu eta gorantza eramanez egiten da, burua zertxobait makurtuz. Errespetua eta esker ona adierazten du, gure energiari eutsi eta aurrekoari ez kentzeko asmoa. Yoga noizbaiten egin dutenek klasea amaitzerakoan egiten dutena. **Erreberentzia**, azkenik, Japoniatik datorkigu eta klaseen arteko aldea marrazteko erabiltzen zen, batez ere nobleen artean. Gaur egun beste zentzu bat dauka eta askoz ere zabalduago dago: gorputza eta burua makurtzen dira 15 bat gradutan, besoak aldamenen daudela, eta errespetua adierazten du batez ere.

### Bestelako agur motak

Mendebaldeko herrietan eskuak estutzea eta besarkadak ematea dira ohikoenak pertsonen arteko agur gisa, airera botatako musu eta besteekin. Herri batetik bestera aldeak izan badira ere: Errusian indarrez heltzen zaio bestearen



Korean jendeak euren aplikazioetan kontsultatzen du airearen kutsadura-maila.



eskuari. Gure ingurutik zenbat eta gehiago urrundu, orduan eta agur bereziagoak (gureztat) aurkituko ditugu: **Tibetean**, esaterako, mingaina ateratzen dute. Monjeek hasi zuten tradizioa eta gero herritarren artean zabaldu zen; IX. mendeko kondaira batetik dator, mingaina beltza zuen errege gaizto baten kontura. Groenlandian **kumika** dute, maite dituztenekin eta gertuenekin bakarrik erabiltzen duten agurra; sudurra eta goiko ezpaina bestearen masailera eramaten dira eta sakonki inhalatzen dute. Zeelanda Berrikoak da **hongia**, eta maorien etnia polinesiarretan dago zabalduta: eskua elkarri

eman eta, begietara begiratu, bestearengana gerturatu dira sudurrak eta kopetak ukitzeraino. **Malasian** eskuak batu eta baten atzamar-puntak bestearenarekin ikutzen dira, gero bihotzera eramateko; emakumea eta gizonezkoa badira tartean, emakumeak hasiko du mugimendua. Afrika hegoaldeko **Zimbabwe**n txaloak izaten dira protagonista agurtzerakoan: toki batera iristen denak txalo bat joko du, eta hartzaileak birekin erantzungo dio, eta Mozambiketan hirurekin. Eta arabiar penintsulako **Oman**en sudurrak elkartzen dituzte, baina gizonezkoen artean bakarrik; emakumezkoen edota sexu desberdinetako artean txarto ikusita dago agur hori.

#### **Maskarak ohikoak Ekialde Urrunean**

Zergatik daramatzate hainbeste urtetan “maskara jantzita” Japonian, Txinan eta Hego Korean? Hemen ez dugu ohitura hori izan behartu ez gaituzten arte, baina aipatutako herrialde horietako metroko eta kaleetako irudietan askotan ikusi ditugu normaltasunez eramaten dutela. Zer dela-eta

## **Ekialdean maskarak eramateak osasunarekin eta poluzio arazoekin du lotura gehien**

horrelako alde? Kultura kontua da bakarrik? Errespetua badago tartean, baina baita osasun kontua ere. Herrialde horietan kontzientzia gehiago dago (sendagileek erabiltzen badute, ez kutsatzeko, zergatik ez besteok?) eta ez dute gaitasun larri bat izan behar maskara jartzeko: gripea edo katarroa izatea nahikoa dute horrela jokatzeko. Errespetu faltatzen jotzen dute birus bat izan eta beste bati kutsatzeko arriskua ez saihestea. Hala ere, badago bigarren arrazoi bat ere: airearen poluzioa.

Udaberrian urtero Mongoliako Gobi basamortutik eta Txinako Loess goi-lautadatik haize indartsuek arrastaka eramaten duten harea hauts-partikuletan bihurtzen da Japonia eta Korea. Herrialde horietan jendea ohituta dago euren aplikazioetan kutsadura-maila kontsultatzera eta, altua bada, maskara jartzera. Edozein alergia agerraldirekin, gauza bera. Indonesian ere kutsadura klimatikoari aurre egiteko erabiltzen dituzte: motorrak eta autoak asko erabiltzen dira eta poluzioa nagusi da bertan, ohikoena izanik maskarak supermerkatuetan saltzea. Singapurrek, ordea, garbiegia izatearen ospea du, eta jendea arduratuta dago bakterien eta kutsatze kontuekin, obsesionatzeraino ia.

Ezin dugu ahaztu, ezta, azken hamarkadotako pandemia gogorrenek Txina eta Japonia erasotu izan dituztela. Batez ere, Txina dugu protagonista eraginkorrena: gaur egungoa gutxi balitz, 2003ko SARS-ak eta 2009ko A Gripeak herrialde hura izan zuten iturburu eta kasu gehien jasan izan zuten bertan. ■



Lehenago irudiari agur esan eta itxuraldatuta etorriko zaigu Berbetan irailetik aurrera.

# Irudi berriarekin hasiko du hurrengo ikasturtea **BERBETAN** mintzapraktikako egitasmoak

Hasieratik bidelagun izan duen irudiari agur esango dio Berbetan programak, eta irudi berriz jantzita etorriko zaigu datorren ikasturtean. “Modernoagoa eta sasoi berriekin bat egiten duen logotipoa” dela diote programaren arduradunek.

**L**aster hogeitau urte beteko ditu Berbetanek, euskera praktikatzeko programak. Euskera ikasten ziharduten askok euskera norekin praktikatu ez zutela-eta, gabezia horretaz jabeturik jarri zituen martxan mintzapraktikako taldeak...eta kitto! Euskara Elkarateak. Izena emateaz bat, irudia ere eman zion egitasmoari, eta irudi hori izan du ikur eta bidelagun urte hauetan guztietan.

Berbetan da egitasmoaren izen nagusia, eta orain dela urte batzuk etorri ziren aldaerak, guraso, heldu, gazte edo tabernari izan, mintzapraktika-erak eskaintzeko orduan ez baitago eredu bakarra. Horrela jaio zi-

ren Gurasoak Berbetan familia-giroa euskalduntzeko, Dendarriak eta Ostalariak Berbetan herriko establezimenduetan euskeraren erabilera bultzatzeko eta Euskeraz Primeran! kanpaina, denda eta tabernetan urtean zehar hainbat ekimen antolatzen dituen ekimena.

Baina sasoi berrietara egokitu behar zela eta, honela diote mintzapraktika-egitasmoaren arduradunek: “Ia hogeitau urte eman ditugu aurreko logotipoekin, egin dute eta bete dute beren funtzioa, eta orain aldatzeko ordua ailegatu da. Goitik behera aldatu diogu programari irudia eta logotipo berriarekin ekingo dio hurrengo

**B**ERBETAN

**B**GURASOAK  
BERBETAN

**E**uskeraz  
primeran!

ikasturteari. Erabat apurtuko du lehenagoarekin, irudi modernoago eta aktualagoarekin jantzi dugu”.

Gauzak ondo bidean, ikasturte hasieran aurkeztuko ditu elkarateak logotipo berriak eta 2020/21 ikasturterako antolatu dituen ekimenak. “Urrian berbalagunak aurrez aurre elkartzeko moduan egotea espero dugu, eta guraso berbalagunentzat eta haien familientzat antolatu ditugun ekitaldiak egin nahiko genituzke. Ikasturte honetan ekitaldi asko laga behar izan ditugu egin gabe, eta, beraz, hurrengoari ekiteko gogoz gaude”, diote egitasmoaren dinamizatzaileek. ■



## Online saioetatik aurrez aurrekoetara

**M**intzapraktikako taldeetan euskeraz ondo hitz egiten dutenak euskera praktikatu beharra dutenekin elkartzen dira, aurrez aurre, taberna batek eskaintzen duen giro informalean. Baina martxoaren erdikaldeaz geroztik etenda egon dira elkartze horiek, halabeharrez.

Egoeraren jabe, eta askorentzat euskeraz hitz egiteko aukera bakarra mintzapraktikarena dela aintzat harturik, ...eta kitto! Eus-

kara Elkarateak euskera online praktikatzeko aukera eskaini zien berbalagunei. Oso ondo erantzun diote proposamenari eta zortzi bat taldek jardun dute online. Gainera, aurrez aurrekoen maiztasunari eutsi diote eta astero-astero elkartu dira nor bere egun eta orduan. Eta horrela jardun dute orain dela gutxira arte, berriz ere aurrez aurre elkartzeko aukera izan duten arte. Pixkanaka-pixkanaka euren ingurune naturalera itzultzen ari dira berbalagunak.

<<< **JUANAN FORMOSO • Berbalaguna** >>>

**“Online saioak ondo daude, baina aurrez aurreko moduko ezer ez dago”**

Juanan Formoso programako berbalagun “beteranoenetakoa” dugu. Urteak daramatza euskera praktikatzeko taldeetan, eta “lagun-kuadrillan” moduan sentitzen da taldekideekin. Oso harreman estua sortu da euren artean eta, astean behin berbalagun-taldean elkartzeaz gain, jardura ugari egiten dituzten euren kabuz, adibidez, sanblas opilen lehiaketa. Konfinamenduan ere ez dute kalerik egin eta, online izan bada ere, astero elkartu dira. Joan den astean berriz elkartu da taldea aurrez aurre, pozik elkartu ere.



Juanan eskumatik hasita bigarrena.

### **Nola moldatu zarete online saioetan?**

Hasieran oso arraroa egin zitzaigun; gure taldeak ez du inoiz kalerik egiten, astero-astero elkartzen gara, eta bat-batean etxetik eta ordenagailu bidez elkartu behar izatea... ez zen erraza izan, baina horretara ere egokitu ginen.

### **Eta itzuli zarete aurrez aurreko. Zelakoa izan da berriz elkartzea?**

Sekulako poza hartu genuen. Taldekide guztiak irrifartsu geunden, ilusioz beteta, umeak bezala. Terraza batean eseri ginen, eta lagun artean euskeraz hitz egiten gustora egon ginen. Datorren astean berriro elkartzeko irrikitan gaude. Online saioak ondo daude, baina aurrez aurreko moduko ezer ez dago munduan.

# Koronabirusak mundua aldatu du, betiko?

Nola aldatu den guztia aste batzuetan... Orain dela hilabete batzuk nork esango zigun horrelako egoera batean egongo ginenik. 2020. urtea ez dugu erraz ahaztuko, ezta komeni ere!

Otsailaren 6an hasi zen urtea aldrebesten, eta ordutik aurrera inoiz pentsatu ez ditugun egoerak bizi izan ditugu; etxetik irten gabe denbora luzez egon behar izan dugu, eta, bien bitartean, hildakoak, beldurra, larritasuna, samina... Egitasmoz eta ideiez beterik zetorren urtea bat-batean okertu zitzaigun.



**G**ure bizimodua goitik behera aldatu da, egun batetik bestera dena gelditu da, baina, aldi berean ezer ez da gelditu. Aurrez aurre eman ez ditugun orduak telefonoz, bideo-deietan, Interneten... eman ditugu; baina ez da gauza bera, inondik inora ere! Izaki sozialak gara, elkarren beharra dugu, eta izaki sozialak egiten gaituen elementurik garrantzitsuenetakoa hizkuntza da, komunikazioa, alegia. Besarkada eta musuak ikonoengatik ordezkatu ditugu, kafe baten inguruko berbaldiak bideo-deiengatik. Gure lehenengo bizimodua kopia nahi izan dugu, eta denbora hori beste era batera betetzen saiatu gara, baina lortu dugu? Denborak esango digu guzti honetatik zerbait ikasi ote dugun, zer-



**"Baina ez dugu etsiko, badakigulako zuek ere ez duzuela etsiko, eta elkarrekin lortuko dugu"**

baitetan hobeak ote garen, zer zokoratu dugun...

**...eta kitto! Euskara Elkarteak elkarte bizia da;** batetik, bazkide eta herritarrentzat eza-gunak dira elkarteko langile eta zuzendaritzakideak, eta, bestetik, gure jarduna oso herritarra eta kalekoa da, hau da, aurrez aurrekoa, soziala.

Zu, irakurle, bazkide, herritar zara ...eta kitto! Euskara Elkartearen arima eta bihotza, baina oraingo honetan zu hori baino gehiago izatea ezinbestekoa da. Hezurdura sendoa, burmuin argia, muskulu indartsuak eta koloretako azalak behar ditugu aurrera egiteko.

Egoera ez da erraza, inorentzat. Martxoaren 14an gure ohiko jarduerak erabat aldatu behar izan genuen, gauzak beste era batera egiten jarraitzeko, haria ez eteteko eta harreman-bideei zabalik eusteko.

**Astero heldu gara zuen etxeetara.** Lehenengo asteetan era digitalean, aldizkaria etxeetan banatzeko segurtasun-neurri guztiak bermatuta egon diren arte horrela egin dugu. Eta baldintza guztiak betetzen direla ziurtatu dugunean hasi gara berriz ere aldizkaria zuen etxeetan banatzen. Baina ez hori bakarrik, banaketarik egin ez dugun aste horietan diseinua berri-tu dugu, erakargarritasuna, modernotasuna eta erabilgarritasuna hobetuz. Etenik ez da izan, beraz.

**Mintzapraktika-taldeek ere ez dute asteroko errutinarik galdu,** eta bideo-dei eta whatsapp bidez jarraitu dute euskera praktikatzeko. Gurasoak Berbetaneko familiei umeekin euskeraz aritzeko eta euskera eta gozamina lotzeko hamaika gauza eskaini dizkiegu: bingoa online, magia-erronkak, sukaldaritza, aitxitxa-amamei zuzendutako mezuak, eskulanak, ipuin musikatuak, magia-saioak... Zein ondo pasatu dugun! Batzuetan ez dakigu geuk bete ditugun zuen orduak edo zuek bete dituzuen gureak.

**Esfortzu handia egin dugu zerbizuetako sektorean;** Eus-



keraz Primeran! ekimenaren bitartez bertakoa aldarrikatu nahi izan dugu. Dendak, tabernak, akademiak, ileapaindegiak, estetika-zentroak... itxita egon direnean babesa ematen eta ilusioari eusten saiatu gara, beti ere euskeratik. Jakin bada-kigulako, orain dela guztia ber-reraikitzeo momentua, baina gauzak beste eredu batetik ber-reraiki behar ditugu, Internet bidezko erosketak alde batera laga eta gure herriko denda eta tabernetan kontsumitu behar dugu, eta kalitatea eta konfian-tza aldarrikatu behar ditugu. Eta, gure kasuan, euskerak be-reziki galdua duen lekuaren zati bat, behintzat, berresku-ratu behar dugu.

Sektorea ahal izan dugun guztia zaintzen eta laguntzen saiatu gara, eta, bide batez, herritarron arteko kohesioa lantzen ahalegindu gara eta euskera zokoratuago gelditu ez dadin indar guztiak jarri ditugu. Zenbat ordu eman di-tugu zuetako askorekin telefo-noz, egoerari buruz hitz egiten, euskerari buruz hitz egiten, eta etorkizuna, momentuaren arabera, grisean edo koloreetan marrazten... Zuon, herri-tarron erantzuna itzela izan da benetan! Zelako partaidetza handia izan duten #Eibarren-Badakagu eta #nikEibarren-gastaukot kanpainak, eta zein betegarria eta pozgarria izan den ikustea denok garela gai lelo baten atzean dagoena uler-tzeko, gaztelarazko itzulpenen beharrik gabe. Baina ateak za-baltzeko momentua heldu de-nean ere hor egotea nahi izan dugu, zuekin, orain arte bezala,

sare sozialen bitartez zabaltzen dituzuen mezuetan eta zuen establezimenduetan jartzen dituzuen kartel eta oharretan euskerari lekua ematen.

Eta, bien bitartean, elikadu-  
ra osasuntsuaren gaineko saioa antolatu dugu online, Illuna-  
barrian programaren barruan. Eta idatzita zeuden Ipurterre Ipuin eta Gutun Lehiaketako lanen ebazpena eta sari-ba-naketa ere egin ditugu, online horiek ere.

Baina, tamalez, nahi genuen guztia ezin izan dugu egin, bi-dean gelditu dira hainbat proiektu, ideia eta ekimen, eta horrek esan nahi du hainbat pertsona ere bidean gelditu direla.

Baina ez dugu etsiko, badaki-gulako zuek ere ez duzuela etsi-ko, eta elkarrekin lortuko dugu.

Orain inoiz baino gehiago behar dugu betidanik izan du-gun bazkide eta herritarren babesa, inoiz baino gehiago behar zaituztegu.

Irabazi asmorik gabeko el-karteak izanik, egoera ekonomi-

**“Benetan zaila da egoera elkarrearentzat, eutsiezina. Urtarrietik hona gure sarrerak ia zerora etorri dira”**



#Eibarrenbadakagu





## "Egoera zail honen aurrean, elkarteak bizirik eusteko arnas eta babes bila joko dugu herritarrongana"



ko zail honetan ezin dugu beste enpresa txiki batzuek eskatu dituzaketen dirulaguntzak eskatu, guretzat bide hori itxita dago.

Gu ez gara enpresa bat, ez dugu irabazirik, eta galerak estaltzeko ezin dugu irabazietatik tira egin. Ezin dugu zuen partaidetzarik gabe aurrera egin, zuek ere gure proiektuetako parte zarete-eta. Izan berbalagun, tabernari, irakurle, guraso berbalagun zein ume, bertso-saioetako entzule zein bertso-paper lehiaketako lehiakide, Sagardo Eguneko bezero zein sagardo eguneko zerbitzari, Ipurterre ipuin-lehiaketako partaide zein epaimahaikokide, Txikitto!ko irakurle zein ikastetxeetako irakasle, Santa Agedako abeslari zein kale kantoiko entzule, itzulpen zer-



bitzua behar duen dendari edo gilda-lehiaketan parte hartzen duen tabernari zein bezero... **ZUEK motorra ZARETELAKO GARA gu IBILTARI.**

Benetan zaila da egoera elkartearentzat, eutsiezina. Urta-rriletik hona gure diru-sarrerak ia zerora etorri dira, publizitateko sarrerarik gabe ia-ia, bes-telako zerbitzuetako sarrerarik gabe, inolako dirulaguntzarik jaso gabe eta gure ohiko dituturri diren ekimenak egiterik izango ote dugun jakin gabe (Kittonbola, Sagardo Eguna...).

Egoera zail honen aurrean, elkarteak bizirik eusteko arnas eta babes bila joko dugu herritarrongana datorren barixakuan hasiko dugun kanpainaren bitartez.

**Zu ZARELAKO gara. ■**







Ezinegona, imajinazioa, konstantzia, zoramena... hitz horiek erabiltzen dituzte erreportaje honetako protagonistek martxotik gaur egun arte bizitzen ari garen alarma-egoera definitzeko. Neurriak denontzat berdinak izan arren, gutako bakoitzari modu batera eragin digu: ikaslea izan, lan egoera bat edo beste izan...

Lerro hauetan zehar hainbat esperientzia partekatuko ditugu itxialdi honek eragin dituen bizipenak ezagutarazte aldera. Horretarako, June Ibarloza, Jone Ayarza, Maite Riko eta Iker Umerez gazteen testigantzak izango ditugu hizpide.

Kazetaria: **Malen Illarramendi Beitia**

# GAZTEON

## COVID19-a, errutina hankaz gora



# Zer diote mahai-inguruko kideek?



## JUNE IBARLOZA

Selektibitatea egingo duen ikaslea

“Selektibitatea uztailaren 6tik 8ra bitartean egingo dugu. Guk San Juanetarako libre egon nahi genuen, baina tira... Horiek ere ez dakigunez nola ospatuko diren...”



## IKER UMEREZ

Erizaina eta ikaslea

“Gu izan gara egoera hau aurrera atera dugunak, beraz, etorkizunari begira arlo honetan murrizketarik ez izatea eta osasun langileok ditugun lan-baldintzak hobetzea espero dut”



## JONE AYARZA

Etxealdia Italian pasatu duen gaztea

“Hasieratik izan dut garbi hemen geratu nahi nuela. Etxealdian zehar Eibarrera bueltatzeko pare bat aukera eskaini dizkirate, baina hemen geratzea erabaki dut”



## MAITE RIKO

Telelana egiten diharduen irakaslea

“Asko eskertzen da egindako lanaren inguruan eskerrak eta erantzun positiboak jasotzea. Egun gogor hauetan gogoz lan egiteko bultzadaxoa ematen dizu”

**Martxoaren 14tik gaur egunera dirauen alarma-egoerak oso bizipen ezberdinak eragin ditu.** Denok egon gara etxean “preso”, baina kasuan kasuko egoera ezagutu beharra dago ikusteko COVID-19ak muturrerako egoerak sortu dituela. Zenbait kasutan, esaterako, lana galtzea, ERTEak, lan-jardun murrizketak... ekarri ditu; beste zenbaitetan, ordea, lanez lepo ibili behar izatea. Ikaske-tei dagokienez, batzuk presio handirik gabe aritu dira klaseetan, eta beste askok, aldiz, urtea galtzeko beldurra izan dute. Aipatutako kasu horietako bakoitza ordezkatzen duten gazteak bildu ditugu osasun-alarma honek nola eragin dien azal diezaguten.

### Ikasle eta irakasleen ikuspuntua

Gazteenetik hasita, aurten selektibitatea egingo duen June Ibarloza daukagu gurekin. Ba-

## “Ikasturtea itxi eta selektibitatea egin arte, urduri jarraituko dut; ez naiz lasaituko” June

txilergoko bigarren urtea egin bitartean, modelo-lanetan ere aritzen da, baina COVID-19ak goitik behera aldatu du bere egunerokotasun hori: desfileak eta argazki-saioak bertan behera geratu zaizkio, eta bere etorkizuna baldintzatuko duen azterketa ere, selektibitatea, kolokan dauka.

Nolanahi ere, hasieran pentsatu baino erosoago sentitu da June ikasketa kontuetan; izan ere, irakasleen aldetik lagun-

## “Etxea lantoki, deskonektatzeko lekua, eta ikasteko gunea bihurtu zait. Ez da erraza izan egokitzea” Maite

tza eta enpatia jaso dute, eta horrek egoera eramangarriagoa egin die ikasleei. Hala ere, “ikasturtea itxi eta selektibitatea egin arte urduri jarraituko dut; ez naiz lasaituko”.

Oraindik zehaztasunak falta zaizkien arren, badakite uztailaren 6tik 8ra bitartean egingo dutela azterketa, institutuan bertan izango dela, eta azterketa-ereduak hautatzerakoan, ohi baino aukera gehiago izango dituztela. Bere

iritziz, selektibitatean EAeko ikasle guztiek izango dituzte aukera berak, azterketa hori oso objektibo delako. Desberdintasuna ikastetxe bakoitzak azkeneko ebaluazioan erabilitako irizpideekin etor daiteke; esaterako, batzuk malguago jokatuko dute eta beste batzuk zorrotzago.

Bestalde, Jone Ayarza dugu. Konfinamendua etxetik kilometro askotara, Italian (Florentzian) hain zuzen, pasatu duen 22 urteko gaztea. Eras-museko esperientzia bizitzeko asmoz joan zen beste herrialde batera eta mundu mailako pandemia honek bertan harrrapatu du.

Hala ere, nahiz eta konfinamenduan zehar etxera bueltatzeko aukera eman dioten, berak bertan geratzea erabaki du, eta ez da hartutako erabakiaz damutzen. Familia eta lagunak faltan botatzen dituela onartu digun arren, ez pentsa

prisa handirik duenik Eibarre-  
ra bueltatzeko. Honela diosku:  
“Etxean sartuta egon eta gero,  
Italiatik bidaiatzeko asmoa  
daukat, eta uztailaren amaie-  
ran edo abuztuan itzuliko naiz”.

Joneri zaila egiten zaio Ita-  
lian zein fasetan dauden zehaz-  
tea; hainbeste dira etengabean  
egiten dituzten aldeketak eta  
ezartzen diren neurriak ne-  
keza egiten zaiola horiek guz-  
tiak barneratu eta argi izatea.  
Gainera, faseak ez omen dira  
modu berean antolatu Italian  
eta Euskal Herrian, herrialde  
bakoitzak bere prozesua jarraitu  
baitu, lekuan lekuko datuei  
errepaturaz.

Maite Riko irakaslea da Gas-  
teizko haur-eskola batean, eta  
telelanean aritu da bere jardun-  
a egiten. Ez zaio lan erraza  
iruditu hain haur txikiekin au-  
rrez aurreko kontakturik izan  
gabe klaseak aurrera eramatea;  
are gutxiago, teknologiaren  
munduan buru-belarri mur-  
gildu behar izatea. Irakaslea  
izateaz gain, ikaslea ere bada  
Maite, eta gradu bat ikasten  
ari da online bidezko modali-  
tatean, eta kasu horretan ez du  
aparteko aldaketarik sumatu.

Dakigunez, Gasteizen aste-  
bete lehenago itxi ziren ikas-  
tetxeak, eta irakasleek tarte  
hori aprobetxatu zuten aurrei-  
kusten zen egoera berrirako  
materiala egokitzeko. Dena  
dela, etxealdia hainbeste luzatu  
denez, prestaketa lanetan aritu  
behar izan dira etxetik ere.

Maitek azpimarratzen du,  
oro har, nahiko gogorra egiten  
zaiola itxialdia. “Etxea lantoki,  
deskonektatzeko lekua eta  
ikasteko gunea bihurtu zait”.  
Kontuan hartuta lehen oso  
denbora gutxi ematen zuela  
etxean, aldaketa sekulakoa  
izan da eta egokitzea ez zaio  
erraza egin. Halere, Maitek  
nabarmendu du gurasoen zein  
umeen jarrera positiboak jasotzea  
oso lagungarria izan zaiola  
lanean gogotsu aritzeko.

Ikasle gisa, ordea, aldaketa  
txikiagoa egin zaio, lehen ere  
online bidez ikasten baitzuen.  
Klaseak jarraitzeko erabiltzen  
dituzten plataformekin gora-

**“Aurreikusita  
geneukan baino  
askoz ere lanegun  
gehiago izan  
ditugu, askotan  
10-11 egunez  
jarraian lan  
eginez” Iker**

behera batzuk izan ezik, denak  
bere horretan jarraitu du.

**Osasun arloa borrokaren  
epizentroatra**

Gutziz bestelako egoera bizi  
duen 22 ,urteko erizaina da

**“Etxean sartuta  
egon eta  
gero, Italiatik  
bidaiatzeko asmoa  
daukat, eta uztail  
amaieran edo  
abuztuan itzuliko  
naiz” Jone**

Iker Umerez, borroka honetan  
lehen lerroan aritzea tokatu  
zaiona. Eibarko Ospitalean  
dihardu koronabirus kasue-  
kin lanean, eta oso gertutik  
bizi izan du birus honek era-  
gindako kaosa. Urgentzia eta



Emergentzia Masterra ikasten  
ere badabil, ahal duen moduan  
lana eta ikasketak uztartuz.

Esan gabe doa osasun-lan-  
gileen lan egiteko modua izu-  
garri aldatu dela azken hileo-  
tan. Ikerrek azaldu digunez,  
“aurreikusita geneukan baino  
askoz ere lanegun gehiago izan  
ditugu, askotan 10-11 egunez  
jarraian lan eginez”. Horrez  
gain, beharra ikusita, ospita-  
leko langile-plantila bikoiztu  
egin behar izan da. Hala ere,  
betebehar asko egin gabe ge-  
ratu diren sentsazioa du eri-  
zainak.

Horri guzti horri egoeraren  
inguruko ezjakintasuna eta  
erantzukizuna gehitu behar  
zaizkio: protokoloak etenga-  
bean aldatu, lanean nola jo-  
katu jakin ez, lan eta estres  
maila askoz handiagoa, era-  
bili beharreko materiala eta  
hartu beharreko higie-neu-  
rriak... Dударik gabe, horrek  
guztiak izugarriko presioa eta  
lan-karga dakarkie osasun lan-  
gileei. Nolanahi ere, denbora-  
rekin, egoera berri honetara  
ohitzen joan dira ezinbestean,  
elkarri sostengua emanez, eta  
talde-lana bultzatuz.

**Etxealditik  
deskonfinamendurako jauzia**

Gure protagonisten hitzetan,  
konfinamenduan zehar eibar-  
tarran jarrera eredu-garria izan  
da orokorrean, neurriak zo-  
rrotz bete baititugu. Deskon-  
finamenduaz galdetuz gero,  
aldiz, iritzi kontrajarriak dituzte.  
June eta Maitearen kasuan,  
egoki baloratzen dute Eibarren  
izan dugun jokaera, nahiz eta  
arauen zailtasunak batzuetan  
arau-hausteak egitera eraman  
gaituen. Ikerrek, ostera, bes-  
telako ikuspegia du: seguru-  
sun-tartea ez da errespetatu,  
ordutegiak ez dira bete, jende  
larregi bildu da terrazetan eta  
zenbait gunetan...

**Aurrera begira,  
jokatu dezagun  
arduraz, egoera ez  
da txantxetarako eta.  
Denok batera lortuko  
dugu!**

# Zein ikasbide atera dituzte gazteek?

## JUNE IBARLOZA

“Esaten digute pertsona guztiok berdinak garela gaitz honen aurrean, edonori eragin ahal diola, asko dutenei eta ezer ez dutenei. Baina, kasu honetan ere, gizarte mailan dagoen arrakala ekonomikoa oraindik nabarmenago gelditu da”

## JONE AYARZA

“Zure bizitza momentu batetik bestera guztiz aldatu daiteke, zure plan guztiak bertan behera geratuz. Etsigarria izan da, uneoro ari zirelako arauak aldatzen”

## IKER UMEREZ

“Egoera honetan osasun arloko langileon artean elkarlana ezinbestekoa izan da; inoiz baino talde-lan gehiago egin dugu, gainerako lankideei sostengua emanez. Hori da gure lanaren oinarria”

## MAITE RIKO

“Teknologia berrietan mulgiltzeko eta trebetasuna hartzeko balio izan dit egoera honek. Pertsonekin aurrez aurreko kontaktua izatea ezinbestekoa da niretzat eta, orain hori ez daukagunez, asko baloratzen dut”



Spotify



iVoox

## Podcast-a entzun nahi?

Mahai-inguru honen **PODCAST** edo audio grabazioa **Spotifyn** eta **iVooxen** entzun eta deskargatu daiteke. Plataforma horietan gazteON izenarekin aurkituko gaituzu. Oso modu errazean!

Podcast-a ingelesetik datorren hitza da (IPOD eta BROADCAST). Mugikor eta ordenagailuetatik entzun daitekeen multimedia fitxategi honek indar handia hartu du azken bolada honetan. Hori ikusita, gazteoneko atala ezin da atzean geratu, eta grabazio hauekin martxan jarri da.

Sartu zaitez **etakitto.eus** web orrian, eta bertan aurkituko duzu mahai-inguru honen grabazioa



**COVID19-a, errutina hankaz gora**



PERIKO IRIONDO



EKHI BELAR



PERIKO IRIONDO





AMAIA RENOBALES



EDURNE ARROYO



EDURNE ARROYO



MALEN JAINAGA



MALEN JAINAGA





MALEN JAINAGA



RAY MUÑOZ

&lt;&lt;&lt; TERESA AGIRREAZALDEGI • EHUko irakaslea &gt;&gt;&gt;

# “Urrutiko irakaskuntzan ikasleen automotibazioa eta disziplina oso garrantzitsuak dira”

Teresa Agirreazaldegi eibartarra irakaslea eta Irakaskuntza Argitalpen Zerbitzuko zuzendaria da EHU. COVID-19ak bat-batean hankaz gora jarri du unibertsitatearen jarduna, baina lan handia eginez egoera bideratu ahal izan dute, eta ezarritako helburuak bete dituzte. Datorren ikasturtera begira ez dakite nola moldatuko diren.

USUE EGUIA FERNANDEZ DE RETANA

**Hasteko, unibertsitatean nola ari zarete moldatzen egoera berezi honen aurrean? Nola eman dituzue klaseak? Nola egingo dituzue azterketak edo ebaluazioak?**

Pandemiak sorpresaz harropatu gaitu, gainerakoak bezala, eta lan handia eginda eta ahal izan dugun moduan moldatu gara. Aurrez aurreko klaseak bertan behera geratu zirenean, web-konferentzia bitartez ematen hasi ginen, Blackboard Collaborate sistema erabiliz. Horrez gain, EHUkeGela irakaskuntza kudeatzeko plataforma ezarritu zuen aspalditik (Moodleren tresna ezagunean oinarrituta), eta hor, ikasteko edo irakurtzeko materialak kargatu, galdetegiak osatu, lantegiak antolatu, lanak entregatu eta kalifikatu, komunikazioa bideratu eta irakaskuntzan oso interesgarriak diren beste hainbat funtzionalitate daude. Plataforma horren bermea izan dugu momentu oro. Bestalde, egoera hau dela medio, unibertsitateak ebaluazioa lan bitartez edo sistema anitzak erabiliz egiteko aholkatu digu; irakasgaiak gaunditzeko pisu guztia azken azterketan jartzen duen ebaluazio modelo saiheste aldera.

**Itxialdia ia egun batetik bestera ezarri zen. Irakasleak nola egokitu zarete egoera berrira? Klaseak modu telematikoan emateko prestakuntza jaso**



### **duzue? Irakasgaien edukia moldatu behar izan duzue?**

Unibertsitateak lehenengo momentutik eskaini zizkigun ikastaroak, eta nik bi egin ditut: klaseak modu telematikoan emateko lehen aipatutako sistemarena, eta galdetegen inguruko beste bat. Bestalde, tresna informatikoez arazoak emanez gero, horiek konponitzeko laguntza handia izan dugu hilabete hauetan. Halaber, irakasgaien edukia moldatu behar izan ditugu, kontuan harturik taldeen tamaina, praktika mota eta abar. Ikastaroaren planifikazioari ahal zen neurrian eustea erabaki nuen, dena aldatzeko berandu zelako, baina, era berean, ebaluatzeko moduak eta ebaluatuko ziren lanak zabaldu ditut. Ikasleen ziurgabetasuna uxatzen ahalegindu naiz, erabakiak goiz hartuz eta informazioa lehenbailehen konpartituz.

### **Honek guztiak nola baldintzatu du irakasleen jarduna? Ezarrita zenituzten helburuak bete izan ahal dira?**

Lan handia izan da, tentsio handikoa. Gainera, lana egiteko egoera ez da beti erraza izan, familia askotan sufrimendua eta kezka egon da hilabete hauetan, eta dago orain ere; eta irakasle askok, irakaskuntzaz gain, beste ardua eta lan-zama batzuk dituzte. Horrez gain, telelana egiten denean esparru mugatua konpartitu beharra dago etxekoekin, eta ez da beti erraza izaten. Ebaluazioa ez da amaitu, baina, gauzak horrela, helburuak ondo bete direla esango nuke. Ez hori bakarrik, bizi-erperientzia inportantea izan da guztiontzat, eta hezkuntza-komunitatea horren inguruko hausnarketa egiten ari da.

### **Eta ikasleei nola eragin die?**

Modu askotan. Lehen aipatu ditudan familietan izan diren eta izaten ari diren egoera gogorrei, ikasleen zailtasun propioak gehitu behar zaizkie: ziurgabetasuna, eta horrek



### **“Modu telematikoan irakasle-ikasle eta ikasleen arteko komunikazioa galtzen da”**

eragindako urduritasuna, onlineko probek sortzen duten tentsioa, ez gaintzeko beldurra, ikasteko zailtasunak, motibazio falta, disziplina-arazoak...; eta, hori gutxi balitz, adin horretan hain garrantzitsua den sozializazioa, mugatuta.

### **Ikasle guztiak izan dute urrutiko ikasketak egiteko aukera? Ikasle batzuk atzean geratu dira egoera honen ondorioz?**

Zailtasunak zailtasun, klase telematikoetan ikasle kopuru handia mantendu da kurtsoa bukatu arte, baita ariketak edo laborategiko lanak entregatze-

### **“Unibertsitateak ebaluazioa lanen bitartez edo sistema anitzak erabiliz egiteko aholkatu digu”**

ko orduan ere, eta konpondu ditugu antzeman ditugun arazo partikularrak. Beharbada, kurtso hasieran ebaluazio ez-jarraitua egiteko eskatu zuten ikasleak geratu dira apur bat galduta, eta hainbatek ezohiko ebaluaziorako utzi dute irakaskaria.

### **Ikasturte hau ez da amaitu oraindik, baina datorren ikasturtera begira lanean jarri zarete?**

Momentu honetan irakasleok ez dakigu ezer hurrengo kurtsoari begira, unibertsitatearen aldetik ez dugu inongo komunikaziorik jaso. Beraz, erne

gaude etor daitekeenari aurre egiteko eta, horretarako, hila-bete hauetako esperientzia oso baliotsua izango zaigu.

### **Modu telematikoan egiten jarraituz gero, nolako ondorioak izan ditzake?**

Lehen irakaskuntzarako plataforma eta teknologiak aipatu ditut, baina EHU ez da urrutiko unibertsitate bat, eta titulazio gehienek bertaratzea eskatzen dutela esango nuke. Komunikazioko graduetan, adibidez, horrela gertatzen da telebista eta irratiko laborategietan. Berdina izango da beste hainbat titulaziotan. Horregatik, egoera txarrean ere, irailtik aurrera ikusiko duguna behin-behineko moldaketa bat izango da, nire ustez.

### **Zer galtzen da ikasketak modu telematikoan eginez gero?**

Modu telematikoan, irakasle-ikasle eta ikasleen arteko komunikazioa eta elkarreragin handia galtzen da. Halaber, urrutiko irakaskuntzan, ikasketa-prozesua arrakastatsua izateko, ikasleen automotibazioa eta disziplina oso garrantzitsuak dira eta, ikasketa-prozesua errazteko, irakasleok metodologia egokiak ezagutu eta aplikatu beharko ditugu. Horrez gain, egoera berriak azken azterketaren erlatibizazioa ekarri du, gaur egun modu telematikoan ezinezkoa baita horren baldintzak ehunetik ehun bermatzea. Hori dela eta, ebaluaziorako sistema osagarriak edo berriak jarri dira eta jarriko dira martxan.

### **Eta zer irabazten da?**

Garraiorik gabe, denbora eta dirua irabazi dugu eibartarrok. Erosotasuna ez hainbeste; etxeko zapatiletan gaude lanean, baina esparrua konpartitu behar dugu gainontzeko etxekoekin, eta hori, askotan, ez da erraza izaten. Gainera, ezohiko elementuak sartzen dira tartean (postaria, telefono-deiak, garbigailua...), eta sarearen eta informatikaren menpe gaude.



Oier Araolaza

OIER ARAOLAZA

## Distancia berriak

Gertatu zaizue inoiz norbaitekin hizketan deseroso sentitzea asko hurbiltzen zitzaizuelako? Distancia fisiko eta etengabe zaintzen ari gara egunotan. Kontzienteki ari gara, larrialdi honi aurre egiteko neurri nagusietako bat horixe baita, gure arteko distantzia zaintzea. Baina honen aurretik ere neurtzen genuen tarteak, gehienetan oharkabean egiten bagenuen ere.

Proxemia du izena elkarrekin komunikatzerakoan gure arteko espazioa eta distantzia nola erabiltzen dugun ikertzen duen alorrak. Edward Hall antropologoak sortu zuen diziplina hau 1968an. Antropologoek ikusi zuten munduan barrena kultura batzuetan gertuago eta beste batzuetan urrutiago kokatzen zirela elkarriketetan parte hartzen zuten pertsonak. Kultura berean ere, norbanako guztiak ez dira neurri berean egokitzen. Gainera, pertsonen arteko distantzia afektiboak ere eragiten du distantzia fisikoan; ez gara berdin kokatzen bikotearekin, lagunarekin, ezagunarekin edo ezezagunarekin hitz egiteko. Elkarriketaren formatoak ere eraldatzen ditu distanziaz: badago tarte lagunarteko giro informala izan ala lan harreman formala izan, eta dendaria eta bezeroaren artekoa ala epailea eta akusatuen artekoa izateak ere eragiten du alderik.

Gertatu zaizue inoiz norbaitekin hizketan hasi eta elkarriketak iraun bitartean hainbat metro mugitu zaretela ohartzea? Ohikoa izaten da hori bakoitzak elkarriketa horretan bilatzen duen distantzian diferentzia dagoenean. Batek gertutasun handiagoa bilatzen du eta oharkabean pausotxoak ematen ditu aurrera. Besteak ordea, tarte gehiagoren beharra sentitzen du, pausoak egiten ditu atzera. Biak oharkabean aritu daitezke, baina batek aurrera eta besteak atzera, konturatu gabe mugitzen doaz espazioan. Esaten dutenez, ONUren pasillo luzeetan punta batetik bestera mugitzen dira kultura desberdinetako hiztunak.

Gure proxemia, harremanetarako darabilgun distantzia-neurria, hankaz gora joan zaigu COVID19 pandemia honen eraginez. Orain distantzia berriak finkatzeko ahaleginean ari gara. Aurretik erabiltzen genituenak baino tarte handiagoak mantentzen ikasten ari gara. Baina lehengo neurriak indarrean ditugu eta, maiz, distantzia zaindu beharra ahaztu eta gerturatu egin garela ohartzen gara. Egoera hau luzatzen bada, eta itxura du hala izango dela, distantzia berrietara ohitzen joango gara, eta gerta daiteke datozen urteetarako gure proxemia kulturala eraldatzea.

**“Lehengo neurriak indarrean ditugu eta, maiz, distantzia zaindu beharra ahaztu eta gerturatu egin garela ohartzen gara”**



MALEN JAINAGA



Asier Ezenarro

ASIER EZENARRO

## Netflix garaile

Mintzagai da esatea krisialdietan denok jasaten ditugula nekeak. Hori inoiz ez da izan horrela. Banketxeek eta enpresa elektrikoek ez dituzte lortu, agian, 2008ko krisialdi ekonomikoaren ostean ere mozkin ikaragarriak? Azken hilabeteotan ere bada irabazle izendatu ditzakegunak: gure bizimodu berrirako entertainment-a eskaini dutenak, Netflix enpresa kasurako. Larrialdi erdian adituek pentsatzen zuten 7 milioi lagunetan igoko zela plataforma horretako harpidetza, baina azkenean kopurua bikoiztu egin zen. Azken hilabeteotan ere askotan entzun dugu "distopia" hitza. Baina errealitatea zineman edo telesailetan ikusten dena baino askoz gogorragoa da, eta askoz ilunagoa izango da bide honetatik jarraitzen badugu. Zientzalariek ohartarazten gaituzte, norantz goazen azalduz natura suntsitzen badugu. Lotura handia dagoela pandemia honen eta lurra nola baliatzen dugunaren artean. Eta klima aldaketak pandemia honek sortutako baino ondorio beldurgarriagoak ekarriko dituela jakinarazi digute. Michael Lowy filosofo eta ikertzaileak askotan esan du honakoa bere hitzaldietan: "Munduko tenperatura sei gradu igoko balitz, Danteren infernua horren ondoan picnic bat besterik ez da izango".

Bigarren mundu gerraren ondoren kapitalismoa birmoldatu egin zen. Erakunde berriak sortu ziren: Nazioarteko Diru Funtsa, Munduko Bankua, Merkataritzaren Munduko Erakundea... eta mendebaldean "urrezko 30 urteak" izan ziren, kontsumoaren eta ekonomiaren igoeraren urteak. Gero 70eko krisialdia etorri zen eta kapitalismoaren erantzuna neoliberalismoa izan zen, langileen eskubideak murriztuz, hondamen ekologikoa areagotuz eta gure bizimodua aldatuz. 2008ko krisialdia beste

kolpe handia izan da langileentzat, denda txikiak zutenentzat, eta abarrentzat. Pandemia hau hasi baino lehenagotik entzuten ziren ahotsak esanez krisialdi berri baten aurrean geundela, eta COVID-19 aitzakia bihurtu daiteke beste murrizketa batzuk abian jartzeko, langileen aurkakoak izango direnak hain zuzen. Pandemiaren aurretik baldintzak zeuden krisi berri batentzako baldintzak bazeuden, COVID-19a lehergaia besterik ez da izan.

Badago kapitalismoaren barruan korrante bat, anarkokapitalismoa deitzen dena, guztia pribatizatuta egon beharko zela defendatzen duena. Estatua Hobbessen Leviathana dela esaten dute eta "askatasuna" pribatizazioa dela. Bakoitzak sinatu behar dituela kontratuak hornitzaileekin eta konpainiekin. Agur osasun eta heziketa publikoari. Hori da proposatzen dutena. Ingu-rumenari inongo begirunerik eskaini gabe, noski.

Nolakoa izango da sartuta gauden krisialdi honen "irteera"? Datorrena gogorra izango da eta, aurreko krisialdiekin konparaketa eginez, ezaugarri berriak izango ditu gainera. Egia da ere borrokak ikusten direla munduan zehar egoera honi buelta emateko, egia den moduan naziorteko harremanetan birmoldaketa bat sortu daitekeela. Berri ona izan da Iranek Venezuelari petrolio laguntza ematea eta Eurasiako "bloke" bat egotea AEB-ei aurre egiteko.

Zelako ezaugarriak izango ditu "mundu berri" honek? Utopiaren alde (arrazoi utopikoa, Ernst Blochen esanetan) urratsak emateko prest gaude? Edo distopia kapitalistaren zain egongo gara? Orain arte... Netflix garaile.

**"Datorrena gogorra izango da eta, aurreko krisialdiekin konparaketa eginez, ezaugarri berriak izango ditu gainera"**



MALEN JAINAGA



Koronabirusak gizartean eragin dituen ondorioen berri eman digu Jokin Bergarak.

<<< JOKIN BERGARA • soziologoa >>>

## “Berdintasunaren eta justizia sozialaren aldeko korronte bat zabaldu da pandemiarekin”

Koronabirusak mundua astindu du eta orainaldi nahasi honetan zalantza betirik irudikatzen dugu etorkizuna. Zientzialariek, medikuek, politikariek eta ekonomialariek zeresana izan dute pandemiaren kudeaketan. Baina zer gertatzen da soziologiarekin? Jokin Bergara soziologoak COVID-19k gizartean eragin duen lurrikara ulertzen lagundu digu.

### Nola aztertzen duzu itxialdia arlo soziologikotik?

Itxialdia hasi zenean egoera anomiko bat zetorrela ikusi genuen, ezezaguna den horren aurrean ez dakigula nola ondo jokatu. Adibidez, ikusi genuen supermerkatuetan erosketa masiboak egiten zirela, jendeak ez zekiela ondo zer gertatuko zen, eta abar. Beldur maila altuko egoera zen. Gizarteak errutinak antolatuta edukitzea

behar du zer egin behar den jakiteko. Asteak pasatu ahala egoera lasaitzen joan zen, errutina batzuk antolatu zirelako.

### Itxialdia ezartzeko erabakia ona izan zen?

Itxialdia ezartzeko neurria berdina izan da guztiontzat, baina ez digu guztioi berdin eragin. Analisisian faktore soziologiko ezberdinak sartzen badira, eraginak oso ezberdinak izan

direla ikusten da. Klase arteko eta genero-ezberdintasunak handiagotu egin ditu, adibidez. Batetik, analisisian klasearen bektorea sartuz gero, ikusten da ez dela gauza bera itxialdia etxe handi batean edo pisu txiki batean pasatzea. Eta bestetik, genero-indarkeria kasuak asko hazi dira. Hiri eta herri arteko dikotomia soziologikoari begira, erabakiak hiri handietan pentsatuz hartu dira. Eta, ho-

rez gain, erabakiak hartzeko orduan helduak hartu dira aintzat eta ez haurrak.

### Aurretik gizartean zeuden arazoak azaleratu dira pandemiarekin?

Gizarteak joera historiko luzeak diren dinamika batzuk ditu. Adibidez, klase eta genero arteko ezberdintasunak. Koronabirusak lurrikara txiki bat eragin duen neurrian, lehen

zegoena modu basatiago batean erreproduzitu du (adibidez, pertsona nagusiak erresidentzietan abandonatzea). Baina era berean, beste alde batetik eta baloratuz, zaintzalanen balio soziala igo egin da, osasungintza publikoa egotea kontsentsu sozial baten ondorioa dela ikusi da, enpresak demokratizatzearen ideiak zabaldu dira, langileen kaleratzeak egin ordez ABEEEak egin dira, hau da, estatuaren interbentzioarekin... Horrelako gauza batzuk ikusi ditugu, dinamika neoliberalari kritika egiten dioten korranteetatik datozen gauzak eta kontsentsu soziala eduki dutenak. Berdintasunaren eta justizia sozialaren aldeko korrantea zabaldu da, lehen ez zegoena.

### **Pandemia gauza berria izan da guztiontzat. Nola erantzun dugu?**

Koronabirusak gizartean zeuden beldur, angustia eta paniko dosi altuak askatu ditu. Horren erakusle dira balkoietako jokabide faxistak, baina ez hori bakarrik; modu autoritarioen gorakada egon da, poliziak ikusi ditugu kalean, multa pila bat jarri dute, estatuaren erabateko zentralizazioa egon da, eta birusak zaplaztekoa eman dio euskal autogobernuari eta agur esan diogu.

### **Arin egin diogu uko gure askatasunari?**

Soziologiak epidemia kasuak aztertu ditu, hau da, horrelako krisi sanitarioen aurrean gizartearen erantzunak nolakoak izaten diren. Lehenengo efektua da ez dakizunaren aurrean dakienari delegatzen diozula erabakitzeak ahalmena. Ez jakintasunaren aurrean askoz zintzoagoak eta obedienteagoak bilakatzen gara. Erakundeekiko mesfidantza-tasarik altuena dugun sasoi historikoa da, baina kasu honetan erakundeek ezarritako neurriak ondo bete ditugu. Lehen jainkoak produzitzen zuen egia eta orain zientziak. Bestetik, ekonomiaren eta zientziaren

## **“Trantsizio sozioekonomikoa eta klima-aldaketa dira gure mendeari dagozkion gai nagusiak, gure biziraupena dagoelako jokoan”**

diskurtsoen arteko talka frontala egon da. Atzetik gizarte zientziak egon dira, “gu ere hemen gaude” esanez.

### **Beldurra da gure etsai nagusia?**

Gauza baten inguruan guk ez badakigu ezer, zientziari itsu egiten diogu kasu. Gaur egun zientzia da jainkoaren ahotza. Bestetik, krisialdi sozial eta ekonomikoa datorren neurrian, beldurrak gu gure baitara biltzea eragiten du eta bestearekiko elkartasun mailak asko jaitea. Beldur hau klase sozial zaugarrienen aurka areagotu daiteke (etorkinak, zaharrak...). Hala ere, distantzia soziala existitzen zen dagoeneko. Askoz gehiago hurbiltzen gara gure klase sozial, etniko eta kulturalakoengana. Hesi automatikoa jartzen dugu ijitoekin, marokorrek edo beste kultura batzuetakoeekin. Koronabirusarekin beste aldagai batzuk sartu daitezke zaku horretan orain: gaixo egon direnak, zaharrak, txinatarrak...

### **Pandemia amaituko da, baina eragin dituen arazo ekonomikoek jarraituko dute. Nola ikusten duzu?**

2008ko esperientzia dugu ikusteko zein ondorio sozial eta ekonomikoa ekartzen dituen. Soziologiatik esan dezakegu desberdintasun sozialak eta klase diferentziak eragin handia dutela krisiaren ondorioetan. Norberaren kapital ekonomikoa, soziala, kulturala... sartzen dira jokoan. 2008ko krisiak erakutsi zuen sektore sozial jakinetan dela erasokorra: emakumeetan, gazteetan eta etorkinetan. Seguruenik datozen urteotan po-

brezia- eta langabezia-tasen igoera ikusiko dugu. Lupaz begiratu beharko dugu zein neurritaraino iristen den hor sortuko den sufrimendua, eta horrek zein ondorio politiko eta sozial edukiko dituen.

### **Segurtasunaren izenean eman dugu gure inguruko informazioa?**

Askatasuna-segurtasuna dikotomia horretan oso gauza arriskutsuak ikusi ditugu. Nahiago dugu seguru sentitu, eta seguru sentitzeko modurik onena Txinara begirajartzea da (gure mugikorretan aplikazio bat edukitzea nondik ibili garen esateko, adibidez). Arriskua da teknologia digitalek zure bizitza baldintzatu dezaketela kultura sartu dezakezula. Txinan sistema sozialen kreditua dute eta politika sozialak horren bidez egiten dituzte. 500 puntura arteko sailkapena da eta zure jokabideen arabera puntu gehiago edo gutxiago dituzu. Sailkapenaren goian bazaude estatuak utziko dizu zine batera joaten, lanpostu bat edukitzen edo auto bat erosten; eta behegaro bazaude, ez. Oso arriskutsua da. Herritar eredu bat nahi dute erreproduzitu, baina hor askatasuna galtzen da. Guztiok ez gara modu batekoak, gure sekta propioa edukitzeko eskubidea izan behar dugu besteena errespetatuz.

### **Arazo handien aurrean bakarka baino taldean aritzea garrantzitsuagoa dela ikusi da?**

Soziologia XIX. mendearen amaieran sortu zen. Gizartea nekazaritza eta abeltzaintza mundutik hirietara pasatzen ari zen, iraultzak eta prozesu politiko gatazkatsuak gertatu ziren... eta jendeak gerta-

tzen zena jakin nahi zuen. Soziologiak hasieratik esan du animalia sozialak garela eta antropologikoki bestea beharrezkoa dugula gure beharrak asetzeko. Kontua da sistema ekonomikoa jakin bati gehiago interesatzen zitzaiola gizartean indibiduoaren diskurtsoa zabaltzea, eta hor dugu 90. hamarkadan Margaret Thatcher eta Ronald Reaganen sasoian Thatcherrek esandakoa: “Indibiduoak daude, ez gizartea”. Hori liberalismoetik dator eta neoliberalismoak gehiago hauspotu du. Hau da, gure artean akordioak egiten ditugun pertsona askeak garela, merkatuaren lege ikusezina eta hori guztia. Pandemia honek erakutsi digu indibiduo bezala gure artean akordioak egiten hasiko bagina, ez lukeela funtzionatuko. Erabaki estruktural batzuk unibertsalak izan beharko lirake, guztioi eragiten digutenak. Talde bezala erantzuteak krisi sanitario baterako, krisi ekonomikoa baterako eta beste problematika sozial batzuei erantzuna emateko balio du..

### **Pertsona hobegoak edo txarragoak irtengo gara pandemiatik?**

Trantsizio sozioekonomikoa eta klima-aldaketa dira gure mendeari dagozkion gai nagusiak, gure biziraupena dagoelako jokoan. Pandemiatik hobek edo txarragoak izaten irtengo garen? Justizia sozial eta ekologikoaren biderantz joango garen galdetuko nuke, bidegurutze hori dagoelako. Aukera materiala baldin badugu, alperrik da ardura indibidualari deitzea (ez egin hegan, ez kontsumitu haragia bost aldiz astean, birziklatu...). Erabaki estruktural batzuk ez badaude, berriro eroriko gara aurreko kontsumo-eredura. Nahiz eta gure askatasuna pixka bat urratu, arazo lodiei erantzuna emateko erabaki estrukturalak hartu behar dira. Kontua da erabaki estruktural horiek interes ekonomikoa bartzuen aurka daudela.



Aurreko egunean egin zuten 48. Udako Ikastaroetarako prestatu duten eskaintzaren aurkezpena Irati Iciarrek eta Kepa Sarasolak. Oraingoan, egoerak behartuta, internet bidez egin behar izan dute. UEU

## UEUren Udako Ikastaroak, #ElkarEkin aurrera

Koronabirusak baldintzatutako egoeran, UEUK Udako Ikastaroen eskaintzarekin #ElkarEkin aurrera egiteko erronka jarri dio bere buruari eta egunean egin zuten aurkezpena Kepa Sarasola UEUko zuzendariak eta Irati Iciar UEUko Udako Ikastaroen arduradunak, UEUren Youtubeko kanalean. Bizi dugun egoerara egokitu behar izan du UEUK bere eskaintza: datak moldatu eta, ekainetik irailaren hasiera bitartean, 17 ikastaro eta jardunaldi antolatu ditu Eibar, Iruñea, Baiona, Usurbil eta Donostian. Guztiek 10 euroko prezio sinbolikoa izango dute..

Internet bidez aurkeztu behar izan dituzte aurten 48. Udako Ikastaroak. Kepa Sarasolak ekitaldi birtualaren hasieran esandako moduan, “koronabirusak gure bizitzak hankaz gora jarri ditu eta baita UEUren egitasmoa ere. Eta, tartean, Udako ikastaroak. Duela aste batzuk ez genekien egin ahal izango genituen, baina azkenean #ElkarEkin aurrera egiteko erronka jarri diogu gure buruari. Zergatik? Udako Ikastaroak UEUren nortasuna, balio-erantsia eta marka direlako; dena on-

line ezin delako eman; aurrez aurrekoaren ezaugarriengatik; udakoetan bizipenen bidez ikasten delako; udakoak gogoeta guneak direlako. Hau guztiagatik, egoera distopiko honek sortzen dizkigun arazoak aukera bihurtu, ausartak eta sortzaileak izan, eta 48. Udako Ikastaroen eskaintza berezia osatu dugu. Gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu garai hauetan hau posible egin duten antolatzaile eta babesle guztiei. Ilusio handiz aurkezten dizuegu aurtengo edizioa eta

**“Ikastaroak beste batzuetan izaten direna baino laburragoak izango dira eta osatuko diren taldeak txikiak”**

bertan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu, osasun neurri guztiak hartuta, noski”.

Ikastaroei buruzko xehetasunak Irati Iciar Udako Ikastaroen arduradunak eman zituen ondoren: “Aurrez aurrekoaren aldeko apustua egiterakoan, eskaintza birmoldatu behar izan dugu, ikastaro gutxiago antolatuta. Guztira 17 jarduera, 12 ikastaro eta 5 jardunaldi izango dira. Bestalde, tokie eutsi egin diegu Eibar, Baiona eta Iruñean eta Donostia eta Usurbilgo aukerak, berriz, elkarlanetik sor-



tu dira. Eta datak ere egokitu ditugu. Eibarren (UEUren ikastetxe nagusian), Donostian eta Usurbilen uztailaren 13ko astean egongo gara, Iruñean (Ezpeleta jauregian) abuztuaren 31n eta irailaren 1ean eta Baionan (Eusko Ikaskuntzako eta IKER zentroko egoitzetan) irailaren 4an”.

“ZientziaK eta Euskara” jardunaldi birtualak emango dio hasiera aurtengo Udako Ikastaroen edizioari, ekainaren 18tik aurrera. Hala ere, ikastaroetarako aukeratu duten formatoa aurrez aurrekoa da. Iciarren berbetan, “Udako Ikastaroen bereizgarria da aurrez aurreko-tasuna, harreman pertsonalak akuilatu eta komunitatea sortzea baitute helburu”. Edozein modutan ere, COVID-19aren pandemiak sortu duen egoeraren aurrean, ikastaroak emate-rako orduan segurtasun neurri zorrotzak jarraituko dituztela argi laga nahi dute. Bestalde, edizio honetan ikastaro labu-

rrak izango dira, 6-10 ordutakoak, eta osatuko dituzten taldeak ere beste batzuetan baino txikiagoak izango dira (10 lagun gehienez).

#### Markeskuarako eskaintza

Eibarren, UEUren egoitza nagusia den Markeskua jauregian emango dituzten ikastaroak lehen astean (uztailak 13-17) izango dira, baita Donostian eta Usurbilen egingo dituztenak ere. Baina ikastaroen aurretik, uztailaren 10ean, Matematikari Euskaldunen IV. Topaketa (Matetop IV.) egingo dute gure herrian. Antolatzaileen berbetan, “2013an antolatu genuen UEUko Matematika sailetik Matematikari Euskaldunen I. Topaketa. Horren ostean, bigarrena etorri zen, gero hirugarrena eta aurtengoa IV.a izango da. Matematikari euskaldunak asko gara eta eremu ezberdinetan dihardugu lanean. Hala ere, sarritan, ez dugu jakiten alboko matematikariak zertan dihar-

## Egoera ezohikoa dela ikusita, hartu dituzten neurriak ere ezohikoak dira: aurten ikastaro guztiek prezio berdina izango dute: 10 euro

duen. Hain zuzen, horretarako antolatzen dugu topaketa hau: elkarren berri izateko, matematikari berriak ezagutzeko eta posible bada elkarlanari bide emateko. Parte hartzera animatzen den orok bere jardunari lotutako edozein gai aurkezteko aukera izango du, hau da, beste zertan dabilen azaltzeko aukera”.

Uztailaren 13an emango dute “BERRIA multimedia: kazetaritzaren praktika berriak” ikastaroa Markeskuan. Eta toki berean eskainiko dute “Euskal Curriculumaren garapen integrala: EKI” izenekoak, uztailaren 13an eta 14an. Uztailaren 15ean emango den “Euskal ahokotasuna eta irudimena: ondarea, sormena eta transmisioa” izenburukoan dagoeneko taldea bete egin dela jakinarazi dute (hala ere, itxaron zerrenda zabaldu da).

Eta uztailaren 16rako, berriz, hitzordu bikoitza prestatu dute: batetik “Informazio eta Dokumentazio Kudeatzailen VI. Bilkura: Tokiko Bildumak. GLAM erakundeek eta komunitateek tokiko memoria elkarrekin eraikitzen” egingo da (09:30etik 14:30era). Eta ia aldi berean, 10:00etatik 13:00era, berriz, “2020. urtea. Ahaztu dugu Hondakinen %50 birziklatu behar direla?” mintegia. ■

Udako Ikastaroetako arduradunak aurkezpen ekitaldian nabarmendu zuenez, “#ElkarEkin leloari zukua atera diogu. Eskaintza hau ez litzateke posible izango gure bidaideen gogo eta inplikaziorik gabe: UEUko sailak, Berria, IkasElkar, ALDEE, Jakin eta Usurbilgo Udala, EWKE eta Tabakalera, Topagunea, Iker zentroa, Iratzar fundazioa, Eusko Kultur, KoopFabrika, UEUren inguruko hainbat norbanako, Bizkaiko Foru Aldundia eta Euskararen Erakunde Publikoa”. Bestalde, hainbat udalek beraien herritarrei dirulaguntzak ematen dizkiete, tartean Eibarko Udalak. Horren inguruko informazio zehatza jasotzeko begiratu [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus) helbidean.



Eibarren egingo diren ikastaroen artean “BERRIA multimedia: kazetaritzaren praktika berriak” izenburukoak dago. Horrez gain, laugarrenez egingo dute matematikari euskaldunek topaketa gure herrian.



#### 48. Udako Ikastaroetarako matrikulazioa:

- Matrikulazioa zabalik dago eta izena emateko aukera ez da itxiko ikastaroa hasi arte.
- Izen-ematea UEUren webgunetik egiten da: [www.ueu.eus](http://www.ueu.eus)
- Ikastaro guztiek prezio berdina eta bakarra izango dute: 10 euro. Salbuespeneko matrikula-prezio berezia dagoenez, ez da ohiko deskonturik aplikatuko.

#### Jarraitu ikastaroen berri ondoko kanaletan:

- Facebook: [www.facebook.com/udakoeuskalunibertsitatea](http://www.facebook.com/udakoeuskalunibertsitatea)
- Twitter: @ueu\_orokorra
- Mastodon: @ueu\_orokorra@Mastodon.eus
- Instagram: @ueu\_orokorra
- ueu365 bloga: [www.unibertsitatea.net/blog/ueu365/](http://www.unibertsitatea.net/blog/ueu365/)
- traolak: #UI48 #ElkarEkin



## Kultura arloko diru-sarrerak %40 txikiagoak izatea aurrikusten da

Kulturaren Euskal Behatokiaren txosten batek dioenez, kultura-arloko agenteek aurreikusi dute urteko diru-sarrerak COVID-19a hedatu aurretik espero zituztenak baino %40,8 txikiagoak izango direla. Azterlana Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak bultzatu du, krisiak kulturaren esparruan izan duen eragina neurtzeko. Kultura adierazleak zein adierazle ekonomikoak aurkezten dira, eta COVID-19a hedatu aurreko egoeraren irudi globala eta sintetikoa eskaintzen da. Halaber, sektoreko agenteek erreakzio gisa egin dituzten ekimenak aztertzen dira.

**K**ulturak COVID-19aren aurretik zuen testuinguruari dagokionez, joera positibo bat identifikatzen da azterlanean, batez ere kontzertuetan eta arte eszenikoetan. COVID-19aren aurreko egoeraren balorazioei dagokionez, azpimarratu beharra dago pertzepzioak positiboak direla agente gehienek kasuan: egoera ona edo oso ona zela adierazi duten agenteak %57 dira (%40,2k ona eta %17,1ek oso ona). Aitzitik, agenteen %20 ren ustez, krisiaren aurreko egoera txarra edo oso txarra zen (%14,5en eta %5,6ren ustez, hurrenez hurren). “COVID-19a kultura-adierazleen zati handi baten bilakaera positiboaren testuinguruan agertu da”, jaso da txostenean.

### Aurreikuspenak

Inkestaren emaitza orokorreki dagokionez, eta urteko diru-sarrerak zenbatetsita, aurrei-

kusitako galerak %40,8ra iristen dira batez beste, agenteek 2020rako aurreikusten zituzten diru-sarrerekin alderatuta. Enpleguan izandako eragin negatiboa %43,2koa izan da (kaleratzeak, ERTEak eta beste neurri batzuk eragin negatibo gisa hartuta), baina eragina izan den kasu guztien %10ean baino ez da egon kaleratzerik. Halaber, eragileen %67,5ek pandemiak jardueran eragin sakona edo erabatekoa izango duela aurreikusten dute.

Kultura-jarduerari dagokionez, jarduerak %82ko beherakada izan du batez beste, eta jardueraren parte txiki batek eutsi ahal izan dio (barne-jarduera, baliabide digitalen bidez egin daitekeena, abian dauden produktioekin edota plangintzarekin zerikusia duena eta abar). Era berean, lehen jasoaldian aztertutako aldi, inpaktua handiagoa izan da produktu fisikoen salmantan (liburuak

### Liburu eta diskoen salmentak %62,49ko beherakada izan du

batez ere), establezimenduak itxi izanaren ondorioz (zehazki, liburuaren eta diskoen salmentak %62,49ko beherakada izan du). Zuzeneko jarduerari dagokionez, kasu gehienetan jarduerak atzeratu dira, datarik jarri gabe. Txostenak adierazten duenez, “programatzaileek bertan behera uztea saihesteko borondatea dutela erakusten du horrek, ziurgabetasunak eta azken asteotako informazioan gertatu diren aldaketek data berriak

finkatzeko aukera nabarmen zaildu badute ere”. Etorkizuneko kontratazioen aurreikuspenek ere %80,4ko beherakada jasotzen dute batez beste.

Inkestan parte hartu duten eragileek beren kultura-proiektuen bideragarritasun ekonomikoa aztertzeko garaian garrantzirik handiena duten gastuak ere aipatu dituzte. Garrantziaren arabera hurrenkeran, honako hauek dira: zerga-betebeharrak, langile-gastua, hornidurak eta, azkenik, kontratatutako kanpoko zerbitzuak.

Kulturako langileek baliatu dituzten neurriei dagokionez, inkestaren lehen jasoaldia egin zen unean honako hauek izan ziren azpimarratuak: telelanari lotutako soluzioak, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen eta zerga-betebeharren malgutzea eta beste administrazio-prozedura batzuk. ■

# + osasun gida

## Logopedak

**AHOTS-LAN**  
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA

 **Isasi, 17 - 1. esk.**  
**943 202691**  
**ahotslan@gmail.com**

**Diagnostikoa eta tratamendua**

Degluzio atipikoa	TDAH
Disfonia	Berba arazoak
Ikaste-arazoak	TEA
	Dislexia

LEHENENGO KONTSULTA DOAN

## Okulistak

 **Oftalmologoak**  
Centro de Oftalmología Avanzada

**JOSE ALBERDI**  
[www.oftalberdi.com](http://www.oftalberdi.com)

San Juan 11 - solainurtea  
943 20 19 82

 **Recalde**  
Clínica Oftalmológica  
Oftalmología Clínica

• **Presbiziaren kirurgia.**

R.P.S. 204/13

Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844  
[www.clinicarecalde.com](http://www.clinicarecalde.com)



## Podologoak

**ELENA AIZPUN**  
PODOLOGOA



838200124  
kolegiatu.zenbakia

T. Etxebarria, 5 - 1. A  
943 12 14 93 / 696 555 208




BIDEBARRIETA, 48  
**EIBAR**  
943 203050

ERDIKO KALE 54  
**ARRASATE**  
943 799746

**PODOLOGOA**  
Erdiko klinika

Nerea Arregi (122 Kolegiatu zbkia.)  
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)  
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

**PODOLOGOA**



**Maidier Lopez Etxebarria**

Arragueta 2 Bis-B, Behea B  
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

 **PODOLOGO**  
T. ORTOPEDICO

**Iñaki Rivero Zabaleta**

Calbeton, 4 - 2.  
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

## Psikologoak

 **AMETS**  
PSIKOLOGIA KLINIKOA  
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa  
[www.centrosamets.com](http://www.centrosamets.com)

Coro Ortiz de Urbina - Master Praktika Klinikoa  
PSIKOLOGOA (G201987 kolegiatu) - Master P.N.L.  
Tel. 675 70 68 07 - Trainer

 **PSIKOTERAPIA ZENTRUA**

**HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO PSIKOTERAPIA**

943 20 22 66  
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea  
[www.arratepsicoterapia.com](http://www.arratepsicoterapia.com)

**Lorena Izaguirre Garcia**  
PSIKOLOGOA-PSIKOTERAPEUTA

Errebal, 15 - 1. ezk. .... EIBAR  
Zuberoa, 4 ..... ZARAUTZ  
Tel. 943 831 618

Psikologia klinika eta  
Psikoterapia zentroa

 **Oscar Mondragon Lili**  
GOZEEZ ETA ARINTSALDEZ  
Urkizu, 13 - beheak  
Tel. 943206823 eta 686859023

## Psikoterapia

 **FUB**  
PSIQUIATRIA / PSICOTERAPIA / ALFA EIBAR

FERNANDO URIZAR BARANDIARAN

**Medikuntza Psikiatrikoa**

Ego Gain, 18 - 1 A (Eibar)  
615 71 54 04

Bailen, 9 - 1. ezk. (Bilbo)  
94 416 49 06

[furizar1@yahoo.com](mailto:furizar1@yahoo.com)



# BELAUSTEGI BASERRIA

## jatetxea restaurante

---

**21.** URTEURRENA

